

**IKUSKIZUN ARRISKUTSUA**

Itsaso oldartuaren indarrak sortzen duen ikusmira begibistan geratu zen iragan otsailean gure kostaldean. Jende andana, kamerak eskutan, gerra-kazetarien paperean, segurtasun hesia pasa eta hurbilenera argazkiaren bila.

**XABAT GALLETEBEITIAK
JARRITAKO BERTSOAK**

**OLATUAK IRITSI
TA KORRIKA HASTEN,
GOITIK BEHERA BUSTITA
KRESALA ARNASTEN...
BAINA JOLAS HORRETAN
EZ AL ZAIGU AHAZTEN
BENETAN NOR DABILEN
NOREKIN JOLASTEN.**

**EZ AHAZTU ITSASOA
BETI DA ITSASO;
MAIZ EMAN EGITEN DU
TA MAIZ BERRIZ JASO.
OLDARTZEAN EGITEN
BADIGU ERASO
BERAREKIN ERAMAN
GAITZAKE AKASO.**

